zu, alaitasuna ta
zoriontasuna
¡Zu zera garra neri
itzaldu nazuna!

III

**Basoan**

Guazen guazen pozez guazen
gu basora,
Aritz sendo orridunen
itzalera,
Belar fiñak berdeturik
ikustera,
Ta choriyen pipirripi
aditzera.

Erramu pian zeiñ on
diran ametsak,
bas-ollarrariesaten dizka
batek gauzak,
barrengo pentsamentu
amoriyozkuak
eta erantzuten du
beti oyarzunak.

JOSÉ ARTOLA.

# GABON

Mutillen kanta maitagarriya
lurra duena berotzen...
zarra dalarik, beti berriya,
¡zer pozaz nagon entzuten....
—Ai au gabaren zoragarriya,
Jesús jayo da Belenen!—

ANTONIO ARZÁC.